

GUZTION ARRASATE

UN FUTURO EN COMÚN

2023-2027

GOBERNU PLANA

PLAN DE GOBIERNO



ARRASATEKO UDALA



UDAL GOBERNUAREN AGURRA

SALUDO DEL GOBIERNO MUNICIPAL

Kaixo herrikide,

Liburuxka hau Arrasateko Udalak 2023-2027 legegintzaldian egin asmo dituen proiektu eta ekimenen berri emateko dokumentua da. Aurten, lehen aldiz, legegintzaldiko bideorria publiko egin eta jendaurrean aurkeztea erabaki du Udal Gobernuak. Gardentasun ariketa honetan, herritarrek jarraipena egin ahal izango diote Udalaren lanei eta plangintzaren betetze mailari.

Guztion Arrasate lortzea da agintaldi plan honen helburua. Udala jakitun baita Arrasate anitza dela, jatorri eta nortasun ezberdinen arteko batura, eta herritar guztiak osatutako komunitate saretua dela bizikidetzaren berme eta altxorra. Horregatik, Udalak, elkarbizitza hori lortzeko helburuarekin lan egin, eta, modu berean, proiektu honetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu arrasatear guztiak.

Izan ere, dokumentu hau, gida bat baino, herriarekin sinatu nahi den hitzarmena da; adostasunetik, elkarlanetik eta auzolanean gauzatzeko proiektua izan dadin. Udala guztion eskura izateko, gertukoa eta entzuten dakiena, parte hartzailea. Aurrera egiteko eta herri hobea izateko, ezinbestekoa izango delako Udalaren, herritarren eta eragile sozial eta ekonomikoen arteko lankidetzaz indartzea.



Este es un documento que da a conocer los proyectos e iniciativas que el Ayuntamiento de Arrasate tiene previsto llevar a cabo durante la legislatura 2023-2027. Por primera vez, el Gobierno municipal quiere presentar públicamente a la ciudadanía la hoja de ruta de los siguientes años. Queremos que a través de este ejercicio de transparencia la ciudadanía pueda hacer un seguimiento de la ejecución del trabajo que se está realizando desde el Ayuntamiento y del grado de cumplimiento del mismo.

El objetivo será conseguir un Arrasate de todas y de todos, para poder sentirse parte del pueblo donde se vive. El equipo de gobierno sabe que Arrasate es plural, una suma de diferentes procedencias e identidades, y una comunidad conectada, formada por toda la ciudadanía que es la garantía y la riqueza de la convivencia. Por ello, el Ayuntamiento quiere trabajar con el objetivo de lograr esa convivencia e invitar a toda la ciudadanía arrasatearra a participar en este proyecto.

Este documento, más que una guía, es un contrato que se quiere firmar con el pueblo, un compromiso de trabajo y de gestión; desde el consenso y la colaboración, un proyecto que se lleve a cabo en auzolan. El objetivo de este plan es estar cerca de la ciudadanía, escuchar y participar, avanzar hacia el futuro. Porque, para avanzar y ser un pueblo mejor, será imprescindible reforzar la cooperación entre el Ayuntamiento, la ciudadanía y los agentes sociales y económicos.

Arrasateko Udal Gobernu
Gobierno Municipal de Arrasate



Maidor Morras Azpiazu (Alkatea / Alcaldesa), Garazi Etxeberria San Miguel (Koordinatzailea eta Hirigintza, Trantsizio ekologiko eta Mugikortasun arduraduna / Coordinadora y responsable de Urbanismo, Transición Ecológica / Movilidad), Kepa Urteaga Garcia (Pertsonala, Auzoak eta OZM - Obrak, Zerbitzuak eta Mantentzea / Personal, Barrios y OZM - Obras, Servicios y Mantenimiento), Eva Abuin Bideburu (Feminismoa eta LGTBI+ / Feminismo y LGTBI+), Mikel San Miguel Merino (Auzoak eta Kirola / Barrios y Deporte), Jasone Giraldo Menendez (Ongizatea, Hezkuntza eta Bizikidetzatza / Bienestar, Educación y Convivencia), Joseba Ezpeleta Irizar (Euskara eta Ogasuna / Euskara y Hacienda), Gladys Fernandez Urizar (Belaunaldiartekotasuna / Intergeneracionalidad), Jaime Bengoa Madina (Tokiko Ekonomia eta Enplegua / Economía y Empleo Local), Asier Murguzur Bolinaga (Kirola / Deporte) eta Andoni Arratibel Garcia (Kultura / Cultura).



**GOBERNANTZA HURBILA
ETA ERAGINKORRA
GOBERNANZA CERCANA Y EFICAZ**

Udal ireki eta parte hartzailea izateko ekintzak gauzatuko dira; oztopo sentituzetik, bidelagun eta gertuko izatera igarotzeko. Herritar guztien etxea da Udala, guztion ongizatea lehenetsiko duena.

Se llevarán a cabo acciones para garantizar un Ayuntamiento abierto y participativo, que no se perciba como un obstáculo y se convierta en una herramienta cercana y de ayuda. El Ayuntamiento es la casa de toda la ciudadanía, donde prime el bienestar de todas y todos.

- **Udaleko ateak zabaltu** eta herritarrek hartzeko ordu tarte publikoak sortzea.
- **Auzo batzorde eta alkatetzak** sortu eta parte hartzeko tresna eta espazio bilakatzea. Lehen lana auzoetako beharren mapa egitea izango da.
- **Herritar Txartela** sortzea, herriko hainbat zerbitzuren txartel bateratua izateko; baita honen APP bertsioa ezartzeko azterketa egitea ere, digitalizazioa eta erabilera errazteko.
- **Herritarrei laguntza zerbitzu integrala** eskaintzeko bitartekoak jarriko ditu Udalak Biztanleen Arreta Zerbitzua (BAZ) berrituta.
- **Udal barneko baliabide eta funtzionamendua aztertu** eta garai berrietara egokitzea.
- **Abrir las puertas del Ayuntamiento** y crear citas públicas para atender a la ciudadanía.
- **Creación de comisiones y alcaldías de barrios** como instrumento y espacio de participación. El primer trabajo consistirá en elaborar un mapa de las necesidades de los barrios
- **Creación de la Tarjeta Ciudadana** como tarjeta unificada de diferentes servicios de la localidad, así como estudio de implantación de su versión APP para facilitar su digitalización y uso.
- El Ayuntamiento pondrá los medios para **ofrecer un servicio integral de atención a la ciudadanía** con la renovación del Servicio de Atención a la Ciudadanía (BAZ).
- **Analizar y adecuar los recursos y funcionamiento interno** del Ayuntamiento a los nuevos tiempos.

BIZITZEKO HERRIA

PUEBLO PARA VIVIR

Herria berrasmatu eta berritzeko beharra dago, etorkizuneko erronkei erantzungo dien herri eredia eraikitzeko: herri jasangarri, irisgarri eta bizitzeko eroso. Horretarako, abiapuntu izango diren honako proiektu hauek gauzatuko ditu Udalak.

Hay una necesidad de reinventar y renovar el pueblo para construir un Arrasate que responda a los retos del futuro: un pueblo sostenible, accesible y cómodo de vivir. Para ello, el Ayuntamiento llevará a cabo los siguientes proyectos que servirán de punto de partida.





- **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) berrikustea:** herritarren parte hartzearekin etorkizuneko Arrasateren hirigintza proiektua definitzea.
- **Mugikortasun plana eguneratzea:** mugikortasun eredu jasangarriago batera trantsizioa egin eta herriko mugikortasun berria birdefinitzea. Besteak beste, behin betiko autobus geltokia, Herribusaren lineak berrikustea eta herriko bidegorri sarea konektatzea.
- **Naturguneak berreskuratzeko hainbat ekimen martxan jartzea:** Etxezarretaren inguru naturala berreskuratu, eta, parke hau, Santa Barbara eta Monterronekin konektatzea.
- **Auzoak berrurbanizatzea:** Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetan, Altamirako lehen fasean, San Juan auzunean, Takolo-Goiru gunean, Udala Auzoan eta Gudarien Plazan, San Andresen.
- **Hileta Zibilak** egiteko leku itxi, intimo eta duina egokitzea.
- **Revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU):** definición del proyecto urbanístico del futuro Arrasate con la participación ciudadana.
- **Actualización del plan de movilidad:** transición a un modelo de movilidad más sostenible y la redefinición de esta. Entre las medidas están la nueva estación de autobuses definitiva, la revisión de las líneas de Herribusa y la conexión de la red de bidegorris de la localidad.
- **Puesta en marcha de diversas iniciativas de recuperación de espacios naturales:** recuperación del entorno natural de Etxezarreta y conexión de este parque con Santa Bárbara y Monterrón.
- **Reurbanización de barrios:** Las calles San Esteban del Puerto y Santa Teresa, la primera fase de Altamira, el Grupo San Juan, la zona de Takolo-Goiru, el barrio de Udala y Gudarien Plaza, en San Andrés.
- **Acondicionamiento de un lugar cerrado, íntimo y digno para la celebración de los **Funerales Civiles**.**





**OINARRI KOMUNITARIOA
DUEN HERRIA
UN PUEBLO DE BASE COMUNITARIA**

Arrasate elkarbizitza gune handi bat da, espazio edo bizikidetzta unitate txikiagoetan banatuta: auzoak, lantokiak, elkartegintza... Komunitatearen izaera indartu eta berreskuratu nahi du Udalak. Elkar bizi eta zaintzeko, eta pertsona guztien eskubideak bermatzeko ekimenak jarriko ditu martxan:

Arrasate es un lugar de convivencia, dividido en barrios, centros de trabajo, asociacionismo... El Ayuntamiento quiere reforzar y recuperar el carácter de la comunidad. Pondrá en marcha iniciativas que garanticen la convivencia y el cuidado mutuo y los derechos de todas las personas:

ZAINTZEN DUEN HERRIA UN PUEBLO QUE CUIDA

Bilakaera demografikoaren eraginez, datozen urteetako erronka nagusienetakoa izango da zaintzena. Horregatik, hainbat ekimen jarriko dira martxan:

La evolución demográfica hará de los cuidados uno de los principales retos de los próximos años. Por ello, se pondrán en marcha diferentes iniciativas:

- **Langile eta kontratatzaileentzat aholkularitza** eta bitartekaritza zerbitzu publikoa martxan jartzea.
- **Ordainpeko zein ordaindu gabeko zaintzaileak babesteko programa** garatu eta Udalak azpikontrataturako enpresen kontratazioa berrikusi eta duintzea.
- **Zaintza sare komunitarioako espazio komunak** landu eta erantzunkidetasuna sustatzeko kanpaina gauzatzeta.
- **La Merced proiektu publikoa definitzea**, beste erakunde publikoekin lankidetzan.
- **Puesta en marcha del servicio público de asesoramiento e intermediación para contratantes y trabajadoras y trabajadores.**
- **Desarrollo del programa de protección a cuidadoras y cuidadores**, tanto con contrato laboral como los trabajos no remunerados, y revisión y dignificación de la contratación de empresas subcontratadas por el Ayuntamiento.
- **Elaboración de espacios comunes para la red comunitaria de cuidados** y campaña de promoción de la corresponsabilidad.
- **Definición del proyecto público La Merced** en colaboración con otras instituciones públicas.


FEMINISMOA ETA LGTBI+ POLITIKAK

FEMINISMO Y POLÍTICAS LGTBI+

Berdintasun sailetik, Feminismoa eta LGTBI+ sailera salto egin eta ikuspegi hau erdigunean jartzeko lanketa berri bati ekingo dio.

El departamento de Igualdad pasará a ser el departamento de Feminismo y LGTBI+ y emprenderá una nueva labor que pondrá en el centro esta perspectiva.

- **Emakume Txokotik, Etxe Feministara** igarotzea: eragile feministekin batera espazio berria definitu eta gauzatzea.
- **“Berdintasun Kontseilu Herritarra”** sortzeko urratsak ematea.
- **Udal enplegu politiketatik genero arrakala ezabatzeko** lanketa egitea. Arrasateko Udal barruko 1. Berdintasun Plana idaztea.
- **LGTBI+ arloari hasiera emango dion herri mailako diagnostikoa** osatu eta ildoaren gaineko lanketa definituko duen 1. plan operatiboa martxan jartzea.
- **Pasar del Emakume Txokoa a Etxe Feminista:** definir y materializar el nuevo espacio junto a las agentes feministas.
- **Dar pasos para la creación del “Consejo Ciudadano de Igualdad”.**
- **Trabajar para eliminar la brecha de género de las políticas municipales de empleo.** Redacción del Primer Plan de Igualdad dentro del Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón.
- **Elaboración de un diagnóstico a nivel local que de inicio al área LGTBI+ y puesta en marcha del 1er plan operativo que defina la línea de trabajo.**



ETXEBIZITZA ESKUBIDEA ETA POLITIKA FISKAL BERRIA DERECHO A LA VIVIENDA Y NUEVA POLÍTICA FISCAL

- **Fiskalitate progresiboa bilatzea** eta bitartean hobari berriak martxan jartzea.
- **Etxebizitza parkearen azterketa** egitea: etxe hutsen erregistroa eguneratu eta alokairu merkatuaren azterketa egitea.
- **Gune tentsionatu izendatzeko eskaera** bideratzea.
- **Gazteentzako alokairu dirulaguntzak berrikustea**, sarbidea errazte aldera.
- **Larrialdi egoerarako etxebizitza parkea** handitzea.
- *Buscar la fiscalidad progresiva y mientras tanto poner en marcha nuevas bonificaciones.*
- *Realización del estudio del parque de vivienda: actualización del registro de viviendas vacías y análisis del mercado de alquiler.*
- *Tramitación de la solicitud de designación de zona tensionada.*
- *Revisar las ayudas de alquileres para jóvenes para facilitar el acceso.*
- *Ampliación del parque de viviendas para situaciones de emergencia.*

BABES SOZIAL ETA KOMUNITARIOAREN HERRIA UN PUEBLO CON APOYO SOCIAL Y COMUNITARIO

- **Prebentzio eta esku-hartze komunitariorako diagnostikoa** osatu eta eragileen mahaia sortzea, gizarte zerbitzuak, eskola komunitatea, osasun sistemako langileak eta herriko elkarteak bildu eta elkarlanean aritzeko.
- **Arrasateko Bizikidetzeta eta Aniztasunaren II. Plana** idatzi eta garatzea.
- *Elaborar un diagnóstico para la prevención e intervención comunitaria y crear una mesa de agentes que aglutine y colabore con los servicios sociales, la comunidad escolar, el personal del sistema sanitario y las asociaciones locales.*
- *II. Plan de Convivencia y Diversidad de Arrasate. Redacción y desarrollo del Plan.*

HEZTEN DUEN HERRIA UN PUEBLO QUE EDUCA

- **Udal Eskola Kontseilua** martxan jartzea.
- **Arrasatek Hezi** proiektua berreskuratzea.
- **Monterron eraikina eta parkearen inguruko gogoeta eta definizioa** bideratzea, espazio honi erabilera hezitzailea ematea, eta parkea, eraikina eta erdigunea konektatzea.
- *Creación del Consejo Escolar Municipal.*
- *Recuperar el proyecto Arrasatek Hezi.*
- *Monterron: Proceso de reflexión y definición del edificio y del parque Monterrón para dar un uso educativo a este espacio y conectar el parque, el edificio y el centro del pueblo.*

BELAUNALDIARTEKO POLITIKAK ZEHARLERROAN LANTZEA TRABAJAR TRANSVERSALMENTE LAS POLÍTICAS INTERGENERACIONALES

Lan ildo berri honetan sail ezberdinen arteko elkarlana abiatu eta abiapuntu izango den belaunaldiartekotasun politikak martxan jartzea:

En esta nueva línea de trabajo, partiremos desde la colaboración entre los diferentes departamentos para poner en marcha políticas de intergeneracionalidad que sirvan de punto de partida:

- **Liburutegiko ordutegiaz haratagoko ikasketa gela** kolektiboa sortzea.
- **Osasun mentalari lotutako diagnostikoa** egitea, ostean ekintza plana definitzeko.
- **Musakolako Gaztegune berria egokitzea** eta Gaztetxea konpontzea.
- **Herriko nagusiak** batuko dituen 'Nagusien Kontseilua' sortzea.
- *Creación de un aula de estudio colectiva más allá del horario bibliotecario.*
- *Realizar el diagnóstico de salud mental para definir el plan de acción.*
- *Acondicionamiento del nuevo Gaztegune de Musakola y reparación del Gaztetxe.*
- *Crear un "Consejo de Mayores" que reúna a las personas mayores del pueblo.*

HERRI AKTIBO ETA EKINTZAILEA

UN PUEBLO ACTIVO Y EMPRENDEDOR

Ibilbide ekintzaile eta aktiboa izan du Arrasatek, eragile sozial, ekonomiko zein kultur eragileei esker. Herrian dagoen potentzial herrigilea aprobetxatu, eta sinergiak sortzeko helburuarekin hainbat ekimen jarriko ditu martxan Udalak:

Arrasate ha tenido una trayectoria emprendedora y activa gracias a agentes sociales, económicos y culturales. Con el objetivo de aprovechar el potencial existente en la localidad, el Ayuntamiento pondrá en marcha diversas iniciativas para crear sinergias:

KIROL HERRIA

Herritarren bizitza aktiboa sustatzeko Kirol Herria programa gauzatzea, kirol ekipamendu, gune natural eta herriko mugikortasuna kontutan hartuz. Horretarako, hainbat proiektu bideratuko ditu Udalak:

Desarrollo del programa Kirol Herria para la promoción de la vida activa de la ciudadanía, teniendo en cuenta los equipamientos deportivos, los espacios naturales y la movilidad local. Para ello, el Ayuntamiento tramitará varios proyectos:

- **Iturripeko Kiroldegia egitea**, horretarako beharrezkoak diren aurre-lanak eginez: lursaila eskuratzea, planeamendua aldatzea eta kiroldegi berriaren proiektua idaztea, obrak 2025ean has daitezten.
- **Musakolako Kiroldegi berria egiteko proiektua** definitzea eta idaztea, gaur egun dagoen eraikina bota eta berria egiteko abiapuntuarekin.
- **Natur guneak berreskuratu** eta Arrasateko Itzulia ibilbidea sustatzea.
- **Ejecución del Polideportivo de Iturripe**, realizando los trabajos previos necesarios para ello: adquisición del terreno, modificación del planeamiento y redacción del proyecto del nuevo polideportivo para que las obras comiencen en 2025.
- **Definir y redactar el proyecto de construcción del nuevo Polideportivo de Musakola**, con el punto de partida para la demolición del edificio existente y la construcción de un nuevo polideportivo.
- **Recuperación de espacios naturales y promoción de la “Vuelta a Arrasate”**.



ARRASATE HERRI KULTURGILEA


ARRASATE CULTURAL

- **Amaia Antzokia** bere osotasunean eraberritzea.
- **Kultur Agenda Bateratua osatzea**, eragile, kultur talde, elkarte edo udaleko kultura sailaren programazioak bateratzeko.
- **Kultur azpiegituren mapa egitea**, erabilera zehaztu eta sarean lan egiteko.
- *Reforma integral del Teatro Amaia.*
- *Elaboración de la Agenda Cultural Conjunta* para unificar las programaciones de los agentes, grupos culturales, asociaciones o departamento de cultura municipal.
- *Elaboración de un mapa de infraestructuras culturales* para definir su uso y trabajar en red.

ARRASATE EUSKALDUNA

ARRASATE EUSKALDUN


- **Arrasateko Euskararen Plan Integrala** osatzea.
- **Euskararen ordenantza** egitea.
- **Esparru sozioekonomikoan "HARIXA" ekimena bultzatzea eskualdean**, enpresa eta lantokietan euskararen erabilera sustatzeko.
- **Herriko euskalkia berreskuratzeko ekimen** eta formakuntzak martxan jartzea.
- *Elaboración del Plan Integral del Euskera de Arrasate.*
- *Elaboración de la ordenanza de euskera.*
- *Impulsar la iniciativa "HARIXA" en el ámbito socioeconómico* para fomentar el uso del euskera en las empresas y centros de trabajo de la comarca.
- *Poner en marcha iniciativas y formaciones* para recuperar el dialecto local.



TOKIKO EKONOMIA ETA ZIRKULARRA

ECONOMÍA LOCAL Y CIRCULAR

- **Arrasateko ehun ekonomikoaren** erresilientzia plana egitea.
- **Coworking-erako espazioa** sortzea.
- **Azoka berritzeko proiektua idatzita**, eta aurrez egindako prozesua kontuan izanda, dagokien egokitzapenak egin eta lanak egikaritutako dira.
- *Elaboración del plan de resiliencia del tejido económico de Arrasate.*
- *Creación de espacios para el coworking.*
- *Redactado el proyecto de renovación de la Azoka, y teniendo en cuenta el proceso participativo realizado anteriormente, se realizarán las adaptaciones correspondientes al proyecto y se ejecutarán los trabajos.*





BILERA INFORMATIBOAK

REUNIONES INFORMATIVAS

A las 18:00 etan

AURKEZPEN NAGUSIA

ERDIGUNEA

OTSAILAK 19 FEBRERO

Kulturateko klaustroak

SAN ANDRES

OTSAILAK 20 FEBRERO

Etxaluze

MUSAKOLA

OTSAILAK 21 FEBRERO

Jubilatuen Etxea

SANTAMAINA

OTSAILAK 22 FEBRERO

Auzo alkatetzan

ERGUIN

OTSAILAK 23 FEBRERO

Auzo alkatetzan

**Alkateak zein Udal Gobernuako kideek aurkezpen saioetan parte hartuko dute herritarrei Gobernu Plana bertatik bertara aurkezteko.*

**Las y los miembros del Gobierno Municipal participarán en las sesiones informativas para dar a conocer el nuevo Plan de Gobierno.*



ARRASATEKO UDALA